

USURBIL

II. Sagastiak Loretan ospakizuneko ekimenak gaur hasi eta ekainaren 1a bitartean

03.05.14 - 00:12 - :: JOSU ARANBERRI | USURBIL.

Hainbat herri eragileren arteko elkarlanari esker, II. Sagastiak Loretan zikloa antolatu dute aurten ere. Gaurtik aurrera, sagarrondoan lorealdiari gorazarre egin asmoz, ekimen ugari izango dira ekainaren 1a bitartean Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarteak, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak, Noaua! Kultur Elkarteak, Usurbilgo Sagastia E.M., Usurbilgo gaztetxeak, Sagardoaren Unibertsitateak, Saizar eta Urdaira sagardotegieak, Bizi Sagardoak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta udalak antolatutako ekimen honi.

Gaur goizeko 10:15etan hasita sagasti loretuetan barrena ibilaldia izango da Jakoba Errekondo herritarrekin. Usurbilgo Baserritarren Kooperatibaren eraikinaren aurretik izango da irteera.

Datorren ostiralean 19.00etan, sgar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea izango da Gaztetxean Guillermo Castaños enologoak lagunduta eta hurrengo egunean, maiatzaren 10ean, berreskuratutako XVI. mendeko Aginagako Sariaaundi Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua iragarrita dago. Tartean, XVI. mendetik gaur arteko musika kontzertua eta dantza garaikide saioa izango dira Eneko Balerdi dantzariarekin. Bertaratzea baieztatu behar da 943 360 321 zenbakian edo elkarteak@noaua.com helbidean.

Maiatzaren 15an, berriz, San Ixidro eguneko ekitaldiak izango dira goiz eta arratsalde, eta maiatzaren 17an, larunbat iluntzean, sagardo dastaketa gidatua eta afaria Saizar sagardotegian Fernando Vadillo enologoaren eskutik.

Maiatzaren 18an XXXIII. Sagardo Eguna izango da egun osoan zehar. 24an, 'Sagastitik Botilara Sagardoa, bisita didaktikoa' izango da Aginagako Urdaira sagardotegian. Izen-ematea Urdaira sagardotegian (943 372 691) edota Noaua! Kultur Elkartearen (943 360 321). 5 euro ordaindu beharko dira.

Azkenik, sagastien udako inausketa ikastaro teorikoa eta praktikoa iragarrita dago Potxoenean ekainaren 1ean 9:00etan Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik. Informazioa, Alkartasuna Kooperatibaren eskuratu daiteke.

TAGS RELACIONADOS

sagastiak, loretan, ospakizuneko, ekimenak, gaur, hasi, ekainaren, bitartean

Publicidad



24% dto.
24% dto. en el consumo de la luz

CANARIAS DESDE 41€
Aún no has reservado tu verano?
Últimos días para aprovechar nuestras ventajas:

HASTA 25% DE DESCUENTO

NIÑO GRATIS

MÁS VENTAJAS

MELIÀ.COM RESERVA

Powered by SARENET

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900,
Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073
Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

Contactar | Mapa Web | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Master El Correo
Política de Cookies

ENLACES VOCENTO

ABC.es
El Correo
Elnortedecastilla.es
Elcomercio.es
SUR.es
Qué.es
La Voz Digital
ABC Punto Radio
hoyCinema
Infoempleo
Autocasion
Mujerhoy
Vadejuegos
Grada360

Hoy Digital
La Rioja.com
DiarioVasco.com
Ideal digital
Las Provincias
El Diario Montañés
Laverdad.es
Finanzas
hoyMotor
Guía TV
11870.com
Pisos.com
Avanzaentucarrera.com
m.diariovasco.com